



**kontsumo**BIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



# MASKARAK



## Zeri erreparatu maskara bat erostean?

Etiketa, eta behar denean, liburuxka edo erabilera-orria eduki behar dute, gutxienez gaztelaniaz idatzita, ez soilik txineraz, ezta ingelesez ere.

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

# Maskara higienikoak



## Zer bete behar dute maskara higienikoek?

- **Seguruak** izatea eta azalean narritadurarik edo bestelako eragozpenik ez eragitea.
- Partikulen iragazpenaren eraginkortasuna **frogatzea**, adibidez eztl egitean, hitz egitean, doministiku egitean.
- Berrerabilgarriak badira, adierazitako garbiketa-ziklo guztiak jasaten dituztela bermatzea.
- Bere ezaugarriak gomendatutako erabilera-denboran bere horretan mantentzen direla **bermatzea**.
- UNE arauaren arabera egiaztatutako **laborategi baten ziurtagiria** izatea.
- Biozidak edo antzekoak badituzte, laborategi-txostenen bidez bermatu behar dira haien eginkizunak.
- **Engainatzeko** asmorik ez izatea eta bere ontzian edo paketean merkaturatzea.
- Etiketa eta, hala badagokio, liburuxka edo erabilera-orria edukitzea eta, bertan, informazioa zingoa da txineraz edo ingelesez bakarrik idatzita egon, gutxienez gaztelaniaz egon beharko da.



## Zeri erreparatu behar diozu etiketan?

- EBko ekoizlearen, banatzailearen edo merkaturatzailearen **izena** eta helbidea.
- Produktuaren **modelo**a eta izena etantziaren edukia.
- **Osaera eta** funtsezko **ezaugarriak**, neurria barne.
- Ehungintzako produktu bat bada, ehunen osaera, Europako araudiaren arabera.
- **Jatorria**.
- Zer arau teknikotan fabrikatu diren.
- Iragazketari, erresistentziari eta iragazkortasunari buruzko **datu testatuak**.
- Garbitzeko metodoa eta jasaten dituen garbiketen kopurua.



## Gainera, jarraibideetan, liburuxkan edo dokumentuan honako hauek jaso beharko dira (etiketan lekurik ez badago):

- Erabiltzeko gomendatutako **epea**.
- *“Oharra: ez da osasun-produktu bat, ez eta norbera babesteko ekipamendua (NBE) ere. Produktu hau gaixotasun-sintomarik ez duten biztanleentzat da”* esaldia.
- Fabrikazio-lotea.
- Kokatzeko, mantentzeko, erabiltzeko eta ezabatzeko jarraibideak.



Informazio hori guztia argia eta iraunkorra izan beharko da, eta bilgarriaren bidez kontsumitzaileak ikusteko moduan egongo da.



Salmenta Internet bidez egiten bada, informazio hori webgunean erakutsi beharko da.



Arau horiek iragazkietan ere aplikatu daitezke.



Eta haurrentzat bada...

- ▶ “Infantil” hitza edo antzekoa erabiliko da.
- ▶ “Erabili heldu batek gainbegiratuta” esaldia jarriko da.
- ▶ **Fabrikazioari buruzko Europako arauak** betetzea eta, bereziki, korapiloak, itotzeko arriskua edo gisakoak eragin ditzakeen elementurik ez izateari buruzkoak.



**Oharra:** 2021eko otsailaren 12an argitaratutako aginduak 30 eguneko epea ematen du merkatuan jarritako maskara higienikoak araudi horretara egokitzeko. Martxoaren 14tik aurrera, maskara higieniko guztiek arau hauek bete beharko dituzte.

## NBE (Norbera Babesteko Ekipamenduak)

Erabiltzaileak eta beste pertsona batzuk babesten dituzte. Hala ere, balbulak dituztenek ez dituzte beste pertsonak babesten.

Kontuan izan:

- ▶ Erabiltzeko jarraibideak.
- ▶ 3 babes-maila daude: FFP1, FFP2 edo FFP3.
- ▶ EE marka izan behar du, erakundearen zenbaki eta guzti.
- ▶ Berrerabilgarria den ala ez.
- ▶ Iraungitze-data.



## Maskara kirurgikoak



Urdinak edo berdeak izan ohi dira. Osasun-produktua da. Etiketaren informazioak, gutxienez, gaztelaniaz agertu behar du, enpresaren eta produktuaren datuekin, lotearen kodearekin, etab.

Kontuan izan:

- ▶ Zenbat irauten duten.
- ▶ Paketatuta sal daitezke edozein establezimendutan. Farmaziek bakarrik sal ditzakete banaka.
- ▶ Zer maskara-mota den (I, II edo IIR). (“R” horrek adierazten du ziprztineei aurre egiteko hesia dela).
- ▶ EE marka izan behar du, erakundearen zenbaki eta guzti.
- ▶ UNE EN 14683 araua betetzen duten.

Beste pertsona batzuk babesten dituzte gure eshalazioetatik.